

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 6040

*IRAGARKIA, 2021eko azaroaren 10ekoa, Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordez-kariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita, lehia beste eskabide batzuk aurkezteko aukera emanez, Urretxu eta Antzuola udalerrietan (Gipuzkoa) dagoen Trekutz parke eolikorako aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera.*

Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoen bidez energia eolikitik energia elektrikoa ekoiz-  
teko instalazioak baimentzeko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak  
4. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Trekutz parke eolikorako aurretiaz aurkeztutako admi-  
nistratio-baimenaren eskaera iragartzen da:

Kokalekua: Trekutz.

Eskatzailea: Cilda Energy SLU.

Eragindako udalerrriak: Urretxu eta Antzuola (Gipuzkoa).

Aerosorgailuen kopurua: 2.

Instalatutako potentzia gordina: 12 MW.

Aerosorgailuen koordenatu geografikoak:

Aerosorgailua	UTM x	UTM y
1	553804	4772176
2	553182	4772495

Hori guztia argitara ematen da, hogeii eguneko epean, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren  
4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan azken aldiz argitaratu zen egunetik zenbatzen hasita,  
parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek lehia eskabi-  
deak aurkeztu ahal izan ditzaten, dekretu horren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Industria  
Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Donostia, Easo kalea, 10, 20006 PK) edo  
izapidetze elektronikoko plataformaren bidez.

Donostia, 2021eko azaroaren 10a.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaria,  
AGUSTIN AROSTEGI ARTETXE.